



Local & Regional  
Europe

# CEMRaren jokabide kodea

2018ko apirila

*Europako Udalerri eta Eskualdeetako Kontseilua  
Interes-taldean erregistroan erregistraturik.  
Erregistro zenbakia: 81142561702-6*

## I. Sarrera

CEMRaren (Europako Udalerri eta Eskualdeetako Kontseiluaren) ekitaldi eta jardueretan ohiko jokabidea errespetuzkoa, adeitsua eta sentibera izaten den arren, CEMRk onartzen du badela jazarpena, indarkeria eta bazterketa sorrarazi ditzaketen balizko egoera-sorta zabal bat.

Jazarpena, indarkeria eta bazterketa *ondoko hauen eskutik, ondoko hauen aurka* edo *ondoko hauen artean* gerta litezke:

- **CEMReko langileak**
- **Elkarte kideetako langileak**
- **Ordezkarri hautetsiak**
- **Hirugarren pertsonak**

CEMRak goian aipatutako guztiak zaindu eta jagoteko eginbeharra dauka bere ekitaldi-etan edota CEMReko kideek edo langileek erakunde hau ordezkatzan duten kanpoko ekitaldietan. Arrazoi horrengatik, CEMRaren erantzukizuna da zero tolerantziako kultura garatzea jazarpenezko, indarkeriazko edo bazterketazko jokabideen aurrean. CEMRaren jokabide kodea arrisku berezia atzematen den testuinguruaren neurria eginda dago. Testuinguru horien artean ondokoak aipa genitzake (gehiago ere badiren arren): biltzarrrak, ospakizunak eta batzarrrak. Kontuan izan behar dugu jokabide horien kausak askotarikoak izan daitezkeela, eta botere egiturei eta jarrerari lotuta egon daitezkeela.

CEMRak antolatzen dituen edo CEMR ordezkaturik dagoen ekitaldi eta jardueretan CEMReko langileek, elkarte kideetako langileek, ordezkari hautetsiek eta hirugarrenek izan beharko luketen jarreraren adierazpena da CEMRaren jokabide kodea. Kodeak, halaber, gerta litezkeen gorabeherak in situ salatu edo aztertze prozedura bat eskaintzen du, kodearen ustezko urraketan salaketak ikertze, ikerketan zehar norbanakoaren eskubideak babesten direla bermatzeko, jarraipena egiteko, eta balizko konponbide edota zehapenak ezartzeko.

CEMRaren jokabide kodea, etorkizunean, neurri osagarriekin indartu liteke, jazarpen, indarkeria eta bazterketa arazoak murriztu, prebenitu eta arintzeko.

## II. Kodea

Europako Udalerri eta Eskualdeetako Kontseiluak (CEMR) jazarpen, indarkeria eta bazterketarik gabeko lan-ingurunea eskaini nahi die pertsona guztiei, kontuan izan gabe pertsona bakoitzaren generoa, kolorea, jatorri etniko eta soziala, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa edo sinesmena, iritzi politikoak edo bestelakoak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondasunak, jaiotza, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa edo egoera sozioekonomikoa.<sup>1</sup>

### **CEMRak ez du onartzen inolako jazarpen, indarkeria edo bazterketa motarik.**

Jazarpena, indarkeria eta bazterketa mota askotakoak izan litezke. Besteak beste:

- a) Fisikoa, psikologikoa, hitzekoa edota sexuala izan daitezke (berariazko larderia, inor zelata-tzea edo jarraitzea, baimenik gabe argazkiak edo grabaketak egitea, eta kontaktu fisiko de-segokia aipatu behar ditugu).
- b) Behin jazotzen diren gertakariak nahiz jokabide sistematikoagoak izan daitezke, norbanako batek zein talde batek eginak.
- c) CEMReko edo elkarte kideetako langileen, ordezkari hautetsien edo hirugarrenen ekintzen edo jokabideen ondorio izan daitezke.
- d) Errespetu faltetatik hasi eta mehatxu serioagoetara eta eraso fisikoetara irits daitezke.
- e) Lege-hauste kriminala izan daitezke, agintari publikoen esku hartzea eskatzen dutenak.
- f) Biktimaren izaeran, duintasunean eta integritatean eragin sakona izan dezakete.
- g) Lantokian, leku publiko batean edo eremu pribatu batean gerta daitezke, lanari lotuta.
- h) Cyberbulling edo ziberjazarpena izan daitezke, informazio eta komunikazio teknologia (IKT) sorta zabal bat erabiliz.

**Jazarpen, indarkeria edo bazterketa izaerako edozein jokabide eteteko eskatzen zaien norbanakoek agindua berehala bete beharko dute.**

---

<sup>1</sup> Tokiko Bizitzan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Europako Gutunaren 2. Printzipioan eta 10. artikuluan dauden bazterketa-zioak.

### III. Kodea betetzea eta prozedurak

CEMRaren jokabide kodea dokumentu publikoa da. Jokabide kode bat eduki gura duten beste erakunde batzuek beretzat hartu eta egokitu dezakete. CEMRaren jarduera edo ekitaldietan parte hartzen duten CEMReko langileei, elkarte kideetako langileei, ordezkari hautetsiei eta hirugarrenei luzatuko zaie, partaide guztiek irizpide hauek ondo ezagutzen eta ulertzen dituztela ziurtatzeko.

Ikerketa-batzorde txiki bat sortuko da jokabide desegokien salaketen jarraipena egiteko, egitateak egiaztatuzko, eta konponbideak edo zehapenak proposatzeko. Jokabide desegokien salaketak jatorrizko abisutik 30 eguneko epean ikertu behar dira. Ikerketa-batzordean CEMReko zuzendaritza-taldeko kide bat, CEMReko kide den elkarte baten ordezkari bat, eta CEMRaren Berdintasun Batzorde Iraunkorreko kide bat egon behar dira; taldean gutxienez gizonezko bat eta emakumezko bat egon behar dira.

Konfidentzialtasuna eta inpartzialtasuna ziurtatzeko helburuz, auziko aldeetako bat (kaltetua edo akusatua) CEMReko langilea baldin bada, elkarte kide bateko zuzendaritza-taldeko kide batek (adb, zuzendari exekutiboak) ordeztuko du ikerketa-batzordean dagoen CEMReko langilea. Modu berean, elkarte kideko ordezkariak auzian zerikusirik badauka, beste elkarte kide bateko zuzendaritza-taldeko kide batek ordeztuko du ikerketa-batzordean.

Ikerketa-batzordea presidenteak izendatuko du kasu bakoitzean.

CEMRaren jokabide kodea ustez urratzen bada, prozedura hauek beteko dira:

#### A. Jokabide desegokiak jakinarazteko betebeharrak (berehala/in situ)

CEMRaren jokabide kodea urratzen denean, kaltetutakoak CEMReko idazkari nagusiari edo CEMReko zuzendaritza-taldeko kide bati jakinarazi beharko dio, ahalik eta lasterren, ahoz nahiz emailaz.

CEMReko idazkari nagusiak (edo haren ordezkariak), in situ salaketa jasotzen duenean, zerikusia duten erakunde edo elkarteetako (hau da, salatuaren eta salaketa egin duenaren erakunde edo elkarteetako) zuzendari exekutiboari, edo unean uneko ordezkariari, jakinarazi beharko die, eta CEMReko idazkari nagusiak (edo haren ordezkariak) berehala jardungo du jokabide desegokia eteteko, berak hoberen irizten dion moduan. CEMReko idazkari nagusiak, gero, idatziz jakinarazi beharko die zerikusia duten erakunde edo elkarteetako (hau da, salaketa egin duenaren eta salatuaren erakunde edo elkarteetako) zuzendari exekutiboari, eta auzia ikerketa-batzordeari bidali, berrikeratuz.

#### B. Jokabide desegokien salaketak ikertzeko betebeharrak

Jokabide desegoki baten salaketa ikertzen den bitartean, CEMRak norbanakoen eskubideak babestuko ditu, ondoko puntu hauek errespetatuz:

- Ikertuak diren norbanakoei egin zaizkien salaketei buruzko informazio guztia eman behar zaie, eta erantzuteko aukera eskaini.
- Kodea urratu dela salatzen duen edozein pertsonak ez du desabantailarik jasan behar horregatik. Norbanakoek jokabide desegokiak segurtasunez salatu behar dituzte, mendekuaren beldur izan gabe eta konfidentzialtasuna errespetatuko dela jakinik.
- Kodearen ustezko urraketei buruzko eztabaida guztiak konfidentzialtasunez egingo dira.

Kodearen urraketak barne mailan aztertuko dira. Salatutako jokabide desegokia legearen aurkakoa baldin bada, hau da, beste legeria batek auzia entzun edo aintzat hartu behar dela agintzen duen

kasuetan, CEMReko idazkaria nagusiak eta ikerketa-batzordeak auzia agintari egokiei bidaliko die eta elkarte kide egokietako zuzendari exekutiboari jakinaraziko die.

### C. Arauak betearaztea

Jokabide desegokiaren abisua aztertu eta ebaluatu ondoren ikerketa-batzordeak uste badu CEMRaren jokabide kodea **ez dela urratu**, kaltetutakoari eta akusatuari ondorioaren berri emango zaie, eta CEMReko presidenteari txostena emango zaio, data, lekua, zerikusia duten aldeak, kexa eta ondorioak adieraziz.

Jokabide desegokiaren abisua aztertu eta ebaluatu ondoren ikerketa-batzordeak uste badu CEMRaren jokabide kodea **urratu egin dela**, kaltetutakoari eta akusatuari ondorioaren berri emango zaie eta, egoeraren larritasunaren arabera, ikerketa-batzordeak konponbide edo zehapen egokiak proposatuko ditu, adibidez:

- Ahal denean, adiskidetzeta informala lehenetsiko da (adibidez, barkamena eskatuz edo abisu bat emanez).
- Ikerketa-batzordeak, urraketa-aren larritasunaren arabera eta gehiagotan gertatu baldin bada, proposa dezake egilea ekitalditik kanporatzea eta elkarte egokiko zuzendari exekutiboari (edo, politikari batek egin badu, presidenteari) jakinaraztea, gutun baten bidez, eta eskatzea diziplina-neurriak har ditzala, bere kodearen arabera, besteak beste aurrerantzean egiten diren ekitaldietara egilea ez bidaltzea.



## Harremanetan jartzeko

Frédéric Vallier  
Idazkari nagusia  
**CEMR**  
1 Square de Meeûs  
B - 1000 Bruxelles  
Tel. + 32 2 500 05 32  
[frederic.vallier@ccre-cemr.org](mailto:frederic.vallier@ccre-cemr.org)

Marielle Combe  
Administrazio eta Finantza zuzendaria  
**CEMR**  
1 Square de Meeûs  
B - 1000 Bruxelles  
Tel. + 32 2 213 86 90  
[marielle.combe@ccre-cemr.org](mailto:marielle.combe@ccre-cemr.org)

## CEMRari buruz

Europako Udalerrri eta Eskualdeetako Kontseilua (CEMR) Europako toki eta eskualde mailetako erakunderik handiena da. Haren kideak Europako 41 herrialdeetako udalerrri eta eskualdeen 50 elkarte nazional baino gehiago dira. Elkarte horiek toki eta eskualde mailetako 150.000 agintaritza ordezkatzen dituzte guztira.

CEMRaren helburua bikoitza da: Europako legerian toki eta eskualde agintaritzen aldeko eragina izatea, eta haren kide diren elkarten eta beraien agintari hautetsien eta adituen arteko trukaketarako plataforma bat eskaintzea.

Bestalde, Hiri eta Tokiko Gobernu Batuen (UCLG), toki gobernuen mundu osoko erakundearen, Europako atala da CEMR.

[www.ccre.org](http://www.ccre.org)